

20. GERRA HOTZA

1. ZER DA GERRA HOTZA?

Gerra hotza: 2.MG ondoren **Estatu Batuak** eta **Sobietar Batasunak** buru zituzten bi herrialde taldek bizitako **tentsio garaia**

2.MGn lagun izan baziren ere, AEB eta SESB ez ziren bata besteaz fidatzen. Aliantza bai, baina deskonfiantza ere bai. Gerra amaitu zenean, tentsioa begi bistan zegoen eta Potsdam, Teheran eta Yaltan behin eta berriro ikusi zen Churchill eta Trumanek ez zutela begi onez ikusten Stalinen Sobietar Batasuna.

Estatu Batuek kapitalismoaren defentsa sutsua egiten zuten eta demokrazia eta askatasunaren ordezkari kontsideratzen ziren. Sobietar Batasunak, berriz, sozialismoa eta justizia soziala defendatzen zuten, burgesiaren kontra eta gizartearen arazoak konpondu nahian.

Gerra pizteko hainbat arrazoi izan ziren, bai ideologiko, politiko, ekonomiko eta propagandistiko. Arrazoi hauek kapitalismo eta komunismoaren arteko diferentzian oinarritzen ziren, AEBk zeukan diruan eta AEBk izan nahi zuen ospea.

2. TESTUINGURUA

1. **WWII-ren bukaera:** gerra irabazita zegoen, AEBk ez zuen beharrik **Hiroshima eta Nagasakin** bonbak botatzeko. Zeukan boterea erakusteko egin zuen. Gerra ondoren hobekien atera zena baitzen.
2. **Yaltako konferentzia (1945):** Ukrainan. **Churchill, Roosevelt** eta **Stalin** bildu ziren. Momentu horretan Sobietar Batasunaren eta haren Armada Gorriaren indarra nabaria zen garaipen militar handiak lortu ostean, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialde gehienak bere mende jarri baitzituen. Potentzia bakoitzak bere helburuak eta interesak defendatu zituen. Harturiko akordioek kezka eta interesak islatu zituzten:
 - **Rooseveltek:** behar-beharrezkoa dela Sobietar Batasunarekin lankidetzan aritzea eta Japoniaren kontrako gerran sobietarrek beste fronte bat zabaltzea.
 - **Stalin:** Sobietar Estatua finkatzea eta haren segurtasuna bermatzea zen. Gerraren emaitzak eskaini zion abagunea aprobeztatu nahi zuen xede hori lortzeko.
 - **Churchill:** Europako egonkortasuna zuen kezkarik handiena. Europako oreka berri baten alde egin zuen lan, eta horretarako, Frantzia indartzearen alde jokatu zuen.
 - **Polonia** ere eztabaidatu zen: **Stalinek** uste zuen segurtasun arazo bat zela (Errusia erasotzeko bidea), eta bide hori itxi nahi zuela, Alemaniaren kaltean, Poloniak Silesiako eta Pomeraniako eskualde aberatsak eskuratuko zituen. **Churchillek** ez zuen Stalinen proposamena onartu, baina Postdameko Konferentzian onetsi zen.

- **Bi jarrera** kontrajarri: **Stalinek Lublineko Batzorde Nazionalari** (komunistek kontrolatua) ematen zion babesa Vs **Churchill-ek**, aldiz, **Londresko gobernu erbesteratuari**
 - Ez zen bi superpotentzien arteko lehia sortu, eta aliatuen arteko lankidetzaz geraldian zegoen. Halaxe adierazten du konferentzian harturiko beste erabaki garrantzitsu batek: **Nazio Batuen Erakundearen sorrera**.
3. **San Frantziskoko Konferentzia: Churchillek eta Rooseveltek** Atlantikoko Gutunean adierazi zuten **nazioarteko bakea eta segurtasun kolektiboa zaintzeko erakunderen** bat sortu beharra zegoela. 1945eko ekainean **Nazio Batuen Erakundea** sortu zen, eta orduan onetsi eta zehaztu zen haren gutuna/araudia 51 estatuk sinatu zuten gutuna. Aurrekoa Nazioen Elkartea izan zen (1919an, WWI ostean) baina AEB ez zegoen barruan eta ahula zen.
 4. **Herri-fronteko gobernuak ezarri ziren (1945-1946):** arlo politikoan, **pluralismoa** eta alderdi anitzeko gobernuak bultzatu ziren, eta sistema mistoa ezarri zen ekonomian. Bigarren etapan, komunistek kanporatu egin zituzten gobernutik beren etsai politikoak, eta alderdi komunistan integratu ziren ezkerreko alderdiak. **Berrikuntza sakonak egin ziren egitura ekonomikoan** bankuak nazionalizatu eta industria nagusiak, eta nekazaritza ere berregituratu egin zen.

3. BLOKEAK

1948. urterako, herrialde guztietan zeuden ezarrita alderdi bakarreko sistema politikoak eta ekonomia planifikatua, sobietar ereduari jarraituz. Banaketa hori bereziki nabarmendu zen Alemanian. Oraingoan desadostasun nagusia Alemaniaren auzia zen. Mendebaldekoek eta sobietarrek politika desberdinak jarri zituzten indarrean han okupaturiko eskualdeetan, erabakiak guztien artean koordinatu barik.

- **Sobietarrek herri-demokrazia** eraikitzeke oinarriak (alderdi komunistaren nagusiagoa eta eraldaketa ekonomikoak bultzatuz) jartzen zituzten
- **Mendebaldekoek**, aldiz, **erakunde liberal eta kapitalistak** ezartzen zituzten.

Gerrako kalte-ordainei buruz ere desadostasunak. Helburuak eta politikak hain desberdinak izanik, anglosaxoiek beren eskualdeak batu zituzten 1947ko urtarrilaren batean.

1947ko otsailean, EBk ezin zuen jarraitu Greziari eta Turkiari babes militarra eta ekonomikoa ematen. **AEBk komunismoa hedatzeko arriskua ikusi**. AEBk, potentzia global bilakatuta, alde batera utziko zuten parte ez hartzeko joera tradizionala. Bestetik, GHren ikuspegia jasotzen zuen, argi eta garbi, doktrina berriak: **bi bloketan banatuko zen mundua**, eta AEBk hartuko zuen “mundu aske”aren buruzagitza.

4. ALEMANIAREN ZATIKETA (1945)

Gerra Hotza hasita, egoera bitxian gelditu zen **Berlin**: sobietarren administrazioko aldean kokaturik bazegoen ere, mendebaldeko Berlin Frantziak, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek administratzen zuten; hots, bloke komunistan kokaturiko uharte kapitalista bihurtu zen. **Mendebaldekoek**, diru-erreforma egiteko asmoz, beren okupazio guneak batu zituztenean, **sobietarrek** mendebaldeko Berlin blokeatuz erantzun zuten 1948ko ekainaren 24an, bideak itxiz eta, ondorioz, hornidura eragotziz. **Bloke komunistan zegoen enklabe kapitalista desagerraraztea zen Stalinen helburua.**

1. BERLINGO BLOKEOA (1949)

AEBk euste-politika jarri mendebaldeko Berlinen kontrolari eusteko airetiko operazio handi bat antolatu bi milioitik gora berlindar janari eta erregaiz hornitzeko. 1949ko maiatzaren 12an altxatu zuen blokeoa Sobietar Batasunak. Ondorioz bizkortu egin zen Alemaniaren banatze-prozesua: 1949ko maiatzaren 23an Alemaniako Errepublika Federala sortu zen, eta urriaren 7an Alemaniako Errepublika Demokratikoa. Munduaren banaketaren ikur bihurtuta. GHeko tentsio gune izaten jarraitu zuen Berlinek. Gerra Hotzaren hasierako nazioarteko krisia izan zen. SESBek mendebaldeko herrialdeen trenen joan-etorria Berlineraino eten. Sobietar eremutik janariz eta erregaiez hornitzea. Hiri osoaren gaineko kontrola bereganatzea. Frantzia eta EB erreforma ekonomikoa proposatu. Hiria lau ataletan zatitu zuten:

- Potentzien Sobiet Batasunaren auto militarrek
- Estatu Batuen Sobiet Batasunaren auto militarrek
- Erresuma Batuaren Sobiet Batasunaren auto militarrek
- Frantziaren Sobiet Batasunaren auto militarrek

Stalinek mendebaldearen esku zeuden Berlineko zatiak lurrez blokeatzea agindu zuen. Blokeak hamaika hilabete iraun zuen SESBk 1949ko maiatzaren 12an altxatu zuten.

2. BERLINGO HARRESIA (1961)

1961eko udan, harresi bat eraikitzeko asmoei buruzko zurrumurruak. Sektoreen arteko muga itxi eta iheslarien fluxua geldiarazi zuten. Aliatuen erantzunaren zain egon ziren biztanle asko, baina ez zen ezer gertatu. 1961eko abuztuaren 12tik 13rako gauean, aldez aurreko abisurik gabe, harresi osoa eraiki zen, "**faxisten aurkako babes harresi**" bat zela argudiatuz. Honek hiria fisikoki banatu zuen; Mendebaldeko Berlin inguratzen zuenez, mendebaldeko sektoreak "irla" bat bilakatu ziren AEDren barnean.

Azaroaren 9an gobernuak ekialdeko alemaniarrei bidaiatzeko debekuak arindu zituen. Gaizki ulertu baten ondoren, debeku guztiak erretiratu ziren eta ehunka pertsona harresira joan ziren segituan, non zaindariak ateak ireki zituzten igarobidea ahalbidetuz. Bertan zeuden soldaduek ez zeukaten horren berririk, baina hiritarren presiopean ateak ireki zituzten. Gainera, hiritar askok gaua kalean pasa zuten azaroaren 10eko goizean harresiaren irekitzera ikusi ahal izateko. Urriaren 3an, indarrean sartu zen **Bateratze Ituna**. Ekialdeko eta mendebaldeko eremu izandakoen artean alde handia dago oraindik. Alemania hurrengo urtean batu zen eta AED ohia Europar Batasuneko kide izatera pasa zen.

5. MARSHALL PLANA (1947)

Estatu Batuetako Armadako estatu nagusiaren buru izan zen 1939tik aurrera. Marshall Plana diseinatu zuen gizona da. 1948ko apirilaren 16an sinatu zen hitzarmena, eta horren arabera Estatu Batuek 13.000 milioi dolarretako diru-laguntza banatu zuten.

Marshall plana **Truman doktrinaren ondorio ekonomikoa** izan zen (Truman doktrina AEBk GHn aurka eramandako politikaren oinarria da, 1947an Truman presidentek sortua).

2. MGren ostean, **Europako egoera oso latza** zen: Hondatuta zegoen azpiegitura ekonomikoa; finantza-arazo larriak zeuden jarduera ekonomikoa berpizteko eta kanpo-merkataritza etenda zegoen. Europak egoera larri horretatik ateratzeko beharrezkoa zuen Europaz kanpoko laguntza. **Estatu Batuak** izan ziren Europari lagundu zietenak, arrazoi politiko eta ekonomikoengatik.

Azkenean planaren helburua **Europako kapitalismoa berreraikitzea** eta sistema politiko liberala zalbatzea alde batetik, eta bestetik iraultza-arriskua uxatzea. Marshall planean Europak herrialde guztiek parte har zezaketen, baina sobietarrek eta haien eragin eremuko herrialdeek estatuen subiranotasunaren aurkakoa zela salatu zuten, AEBko laguntza ukatuz.

Ipar Amerikak 16 herrialderi laguntza eman zien, eta kanoan gelditu ziren Espainia, Finlandia eta Sobietar Batasunaren mende zeuden herrialdeak. Espainian momentu horretan Frankismoa ezarrita zegoelako, Finlandian Stalinek eta SESB. Planari esker, Europako ekonomia berreraikitzea eta bizkor garatzea lortu bazen ere, Europaren banaketa finkatu zen, Mendebaldea AEBren nagusigoaren azpian eta Ekialdea Sobietar Batasunaren mendean.

6. NATO ETA VARSOVIAKO ITUNA (1949), COMECON

Truman doktrinaren aplikazioa arlo ekonomikoan Marshall Plana izan zen; arlo militarrean, berriz, Washingtoneko Itunean gauzatu zen, non **Nato** izeneko aliantza militarra sortu zuten Estatu Batuek eta Mendebaldeko Europako aliatuek.

Aliantza honek 12 kide zituen: Europako hamar herrialde, AEB eta Kanada. Aliantza honen gakoa Itunaren bosgarren artikulua zen: kide baten kontrako eraso guztien kontrako erasotzat hartzen da, eta guztiek erantzungo dute militarri. **Sobietarren ustezko mehatxuari aurrea hartzea zela helburua**.

NATOrri erantzunez, **SESBek Varsoviako Ituna** sinatu (1955), estatu sozialistak batu nahian. Nahiko ezegonkorra zenez, Jugoslavia berehala atera zen Itunetik. Kasu honetan, Sobietar Batasunak soldaduen %80a jarri zuen eta, egoitza bere lurretan izateaz gain, erabateko kontrola zuen.

7. KOREAKO GERRA (1950-1953)

Gerra hotzeko lehenengo gerra beroa Korean piztu zen 1950. urtean. 1910. Urtetik aurrera, Korea **Japoniaren kolonia** zen. **Sobietarrek** armadak Koreako iparraldea kontrolatu zuen eta **AEBko tropek** hegoaldea, eta bi armaden arteko muga ezarri zen behin-betikoz. Baina bi superpotentzien arteko tirabirak hasi zirenean, bi gobernu ezarri ziren. Ondoren bi estatu sortu zituzten, Hego Koreako Errepublika eta Ipar Koreako Errepublika, baina biek kontrolatu nahi zuten Korea osoa. Ikusten denez, Asiako Alemaniaren itxura hartzen ari zen Korea.

1950an **Ipar Koreako Armadak** Hegoaldea inbaditu zuen. Berriro ere, AEBek *containment* (Komunismoa ez zabaltzeko ezarri zuten politika) jarri zuen indarrean. Segurtasun Kontseiluan sobietar ordezkariak ez zegoela aprobetxaturik, AEBk Nazio Batuen banderapeko armada bat eratu eta Koreara bidaltzeko onespena lortu zuten. **Estatu Batuek** gidatzen zuten armadak, Ipar Koreakoak Hego Koreatik kanporatu ez ezik, iparraldea ere eraso eta inbaditu zuen.

Ondoren, Txina hartu zuen esku gatazkan, Hegoaldean NBERen tropak atzerantz egitera behartuz. AEBko armada buruak, Txinaren kontra bonba nuklearra erabiltzea proposatu zion Trumani, baina honek uko egin zion, superpotentzien arteko zuzeneko gatazkaren beldurrez. Beraz, gerra mugatuaren kontzeptua nagusitu zen; hots, superpotentziak edo beren ordezkariak eremu mugatuan bakarrik borrokatuko ziren Gerra Hotzean, erabateko gerra ekidin beharra baitzegoen, elkar erabat suntsitzeko gaitasuna zuten era. Azkenik, 1953an sinatu zen armistizioa; 1950ean bezala gelditzen muga. **3 milioi hildako** gora eragin zuen gerrak, baina **ez zen inolako lurralde-aldaketarik izan**.

8. BAKEZKO BIZIKIDETZA (1953-1962)

Koreako Gerraren ostean, garai berria zabaldu zen bi superpotentzien arteko harremanetan. Aurreko haustura diplomatikoa gainditu zuten, eta **harremanak berregin** zituzten Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek. Sobietar Batasuneko buruzagi berria garrantzitsua izan zen, izan ere, Stalin 1953. urtean hil zen, eta trantsizio garai baten ondoren, **Nikita Khrustxov**-ek hartu zuen alderdi komunistaren agintaritzatza. Honek estalinismoaren gehiegikerietako batzuk salatu zituen. Honek proposatu zuen Bakezko Bizikidetzak kontzeptua.

Bakezko bizikidetzak fruituak eman zituen lehenengo urteetan, adibidez: 1953an, Koreako Gerra bukatu zuen armistizioa erabaki zen; 1954an, Vietnamgo Gerra koloniala bukatzeko helburuz, Genevako Ituna hitzartu zuten. 1959az geroztik, ez zuten akordiorik lortu bi superpotentzien arteko elkarrizketan. Khrustxovek jarrera tinkoa erabil izuen, bakezko bizikidetzak norgehiagokari eta tentsioari bidea ematen. Esan beharra dago tentsio hori egon arren, hauek bazekitela ezin zutela gerra batean sartu, AEB eta SESBren arteko gerra gertatzen bazen, III Mundu Gerra izango zen, mundua guztiz suntsituko zuen gerra, bi etsai hauek oso boteretsuak zirelako.

9. VIETNAMGO GERRA (1955-1975)

Vietnamen, Laosen eta Kanbodian gertatu zen, eta elkarren aurka:

- **Ipar Vietnam komunista:** Sobietar Batasuna, Txina eta beste aliatu komunista batzuk lagun
- **Hego Vietnam kapitalista:** (AEB eta beste aliatu antikomunista batzuk lagun zituela).

AEB izan zen gatazkan murgildu zen kanpoko botere nagusia, Frantziak zonaldeak alde egindakoan. Vietnamgo nazionalistek Vietnamgo hegoaldea ezin izan zuten mendean hartu ez Frantziaren kontrako Lehen Indotxinako Gerran (1946-1954) (Vietnamgo gerra deritzona Indotxinako Bigarren Gerra izango bailitzateke) ez horren ostean ere. AEB 1956an, Hego Vietnamgo tropak irakasteko ardura osoa hartu zuten. 1965rako, borroka-tropa amerikar garrantzitsuak iritsita zeuden. Azkenik, 1973an joan ziren. VietnamGo gerra 1975eko apirilaren 30ean bukatu zen, Saigon, Hego Vietnamgo hiriburua Ipar vietnamdarren menpe geratzean.

10. KUBAKO MISILEN KRISIA (1962)

Iraultzaren ondoren, Kubaren eta AEBn arteko harremanek okerrera egin zuten. Fidel Castroren politikak eragina izan zuen iparramerikarren interes ekonomikoetan: nekazaritzaren erreforma bultzatu zuen, AEBko konpainien interesen kaltean. FCren diskurtso politikoak gogor salatzen zuen iparramerikar inperialismoa. AEBk presio ekonomikora jo zuten. Azukrea zen Kubako ekonomiaren oinarria eta AEBk bezero nagusia; egoera horretan, merkataritza-harremanak murriztea erabaki zuen iparramerikar administrazioak 1960ko uztailen. Geroago, harreman diplomatikoa (1961eko urtarrilean) eten zen, eta, azkenik, presio militarri ekin zioten. 1961eko apirilaren 17an, CIAk antolatuta, Castroren aurkako errefuxiatuen talde bat Cochinos badiatik sartu eta irla inbaditzen saiatu zen, baina porrot egin zuten. Kubaren eta AEBen arteko harremanek txarrera egiten zuten neurrian, Castrok SESBren laguntza ekonomikoa (Sobietar Batasuna Kubako azukrearen bezero bihurtu) eta babes militarra bilatu eta lortu zuen; lehendabizikoz hedatu zuten sobietarrek beren eragina Latinoamerikara. Izan ere, Kubako Iraultzak sobietar eredua (aderdi bakarreko sistema eta ekonomiaren planifikazio zentrala) ezartzeko politika bultzatu zuen; bide horretan, 1962. Urtean, errepublika demokratiko eta sozialista bihurtu zen Kuba, SESBren babesean. Kubako iraultza-prozesuaren emaitza porrot ikaragarria izan zen Estatu Batuentzat, SESBren satelite bat ezarri baitzen iparramerikarren atarian.

Egoera nahasgarri horretan, Kubako misilen krisia piztu zen 1962ko urrian. AEBk Turkian ezarrita zeuzkaten arma nuklearrak parekatzeko, sobietarrek Kuban misilak kokatzea erabaki zuten. Operazio horretaz jabetuta, Kennedyk Kuba itsasoz blokeatu zuen, sobietarrei Kubarako itsas bidea moztuz, misilak ezartzeko operazioa eragozteko. Gerra Hotzeko une arriskutsuena izan zen hori, lehenengo aldiz 2 superpotentzien arteko talka benetan gerta zitekeela ematen zuen eta. Azkenik, urriaren 28an atzera egin zuen Moskuk. Horren truke,

Kennedyk Turkian ezarritako misilak kendu eta Kuba ez inbaditzeko hitza eman zuen. Misilen krisiak garbi erakutsi zuen GH Latinoamerikara ere hedatu zela. Bestalde, krisiak eta erabateko gerra pizteko arriskuak agerian utzi zuten superpotentzien arteko komunikazioa hobetu beharra zegoela. Krisiaren ondoren, gehitu egin ziren harremanak, eta GHk garai berri bati eman zion hasiera, distentsioari, alegia.

11. DISTENTSIOA (1962-1980)

Distentsioaren garaian, aurkakotasun bipolarra jarraitu bazuen ere, elkarrizketaren eta negoziazio diplomatikoen bitartez bideratu ziren Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko harremanak, horrela desagertzen erabateko gerra pizteko arriskua. Negoziazioek fruituak eman zituzten eta akordio garrantzitsuak lortu ziren, batez ere 1968tik 1975era. Esate baterako, 1968ko Arma Nuklearrak ez Ugaltzeko Hitzarmena, arma nuklearrak potentzia gutxi batzuen esku uztea zen bere helburua.

Aipaturiko akordioek erakusten digutenez, AEB zein SESB arma-lasterketa kontrolatu beharra eta arma nuklearrak mugatu beharra ikusten zuten, eta horixe izan zen distentsioaren faktoreetako bat. Distentsioaren garaian ez ziren gatazkak desagertu. Bi superpotentzien lehiak bizirik zirauen. Distentsioa eta tentsioa ziren Gerra Hotzaren berezko ezaugarriak.

DISTENTSIOAREN AMAIERA

1975etik aurrera, nazioarteko harremanen distentsioa agortzen hasi zen. AEBren gainbehera erlatiboa hauteman zitekeen munduan, Nikaraguako iraultza sandinistak (1979) edo Irango iraultza islamikoak (1979) islatzen zuten. Bitartean, SESBk bere eragina zabaldu zuen 3. Munduko zenbait herrialdetan: Asiako hego-ekialdean (Vietnam bateratuarekiko adiskidetasun-hitzarmena 1977an) eta Afrikan (Mozambiken eta Angolan 1975ean erregimen komunistak ezarri ziren; eta baita Etiopian ere, 1977an). Horrez gain, Afganistango gerra gertatu zen. Distentsioa amaitu zela erakutsi zuen Afganistanera tropak bidaltzeak. Testuinguru hartan, Ronald Reagane-k (1981-1989) AEBko kanpo politika aldatu zuen. Sobietarrekiko distentsioa bultzatu beharrean, Estatu Batuak nagusitzea lortu nahi zuen Reaganen administrazioak. Berriro ere politika gogorra eta, Trumanen garaian bezala, diskurtso antikomunista sutsua plazaratu zuen. Garai hartako (1980-1985) nazioarteko tentsioaren gorakada adierazteko erabiltzen dugu “bigarren gerra hotza” esapidea, GHren hasierako tentsio-mailara heldu zela adierazi nahian.

12. LATINOAMERIKA

Latinoamerikara ere heldu zen Gerra Hotza garai hartan. Europan edo Asian bezala, Estatu Batuen nagusitasuna eta interbentzionismoa ez zen Gerra Hotzaren garaian hasi. Hego Amerikan lehenago izan zen, XIX. mendean. 1950eko hamarkadaren bukaerara arte Latinoamerika ez zen Gerra Hotzeko tentsio-gune izan; izan ere, eztabaidaezina zen Estatu

Batuen nagusitasuna, eta Sobietarrek ez zuten Latinoamerikan zabaltzeko interesik erakutsi. Baina Kubako Iraultzak eta haren bilakaerak erabat aldatu zuten egoera 1959. Urtean.

TXILE (1973)

Salvador Allende 1970eko irailaren 4an heldu zen Txileko Presidentetzara, botoen %36,3rekin, herrialdea erregimen sozialista bat izatera bideratuko zuela aginduta.

1973ko ekainaren hasieran gizarte arazo handiak zeuden, eta Armadako goi-agintea Allenderen Gobernuarekiko konfiantza galtzen hasi zen. Hala, urte horretako ekainaren 29an Blindatuen 2. Erregimentua, Roberto Souper koronelaren agindupean, matxinatu egin zen. Hala ere, Carlos Prats Armadaren komandante-buruaren indar leialek saiakera hori menderatu zuten. Estatu kolpe saiakera horri "El Tanquetazo" deitu zaio, tankeak nonahi ikus zitezkeelako.

Urte horretako abuztuaren 21ean, Prats jeneralak komandante-burua izateari uko egin zion, eta kargu hori Pinochetek hartu zezala gomendatu zion Allenderi, hura Gobernuarekin leiala izan zela uste baitzuen. Horrela, presidentek jeneral "kolpistak" kendu eta Pinochet Armadaren buru izendatu zuen 1973ko abuztuaren 23an.

19 egun geroago, Pinochetek berak, Armadako beste hiru jeneralekin batera eta AEBetako Gobernuaren laguntzarekin, estatu kolpea zuzendu zuen "herrialdea marxismoaren uztarripetik askatzeko", eta 17 urtez iraun zuen diktadura baten agintari gorena bilakatu zen.

13. AFGANISTANGO GERRA (1978-1992)

1979ko irailan → Lehen ministroak estatu kolpea eman zuen eta sobietarrek esku hartu zuten 1979an, bertako erregimen komunistari eusteko. Gertakari horrek argi eta garbi adierazi zuen distentsioaren amaiera. Sobietarren armada hamar urtez borrokatu zen Afganistanen, 1989ra arte, baina ezin izan zituzten gerrilla taldeak (AEBren laguntza zuten) menderatu. Honek al-Qaedaren sorrera ekarri zuen. Gerra Hotzaren azken etapa izan zen.

14. MUNDU BIOLARRAREN AMAIERA (1985-1991)

Berrogei urtez iraun zuen nazioarteko orden bipolarra deuseztatzen hasi zen 1985az geroztik. Sei urte geroago, Gerra Hotza ez ezik, **superpotentzia sobietarra ere desagertu** zen. Uste da, Sobietar Batasuneko barne krisia izan zela Gerra Hotzaren amaieraren arrazoi nagusia. Izan ere, Raeganek, Barne produktu gordinaren %25 defentsarako eman zuten, hau ezinezkoa zen, izan ere, AEBk %7 erabili zuelako.

Gainera sobietar ekonomia egiturazko krisi sakonean murgilduta zegoen, 1960ko hamarkadatik aurrera gero eta motelago hazten ari zen eta. Egoera horri aurre egiteko

Gorbatxovek “birmoldaketa” izeneko egitasmo erreformista zuen helburu nagusi: sobietar ekonomia berpiztea; baina ekonomia gauzatzeko kanpo-politika aldatu behar da defentsako gastu handiak murriztu; hau da, sobietar ekonomiak ez zion sobietar inperioari eutsi. Horregatik, GH ordeztu, potentzien arteko lankidetzaren elkarriketa eta adostasuna proposatu zuen Gorbatxovek.

- **Washington Ituna, 1987/12/8:** Irismen ertaineko misilak kentzea erabaki.
- 1988. eta 1989. urteetan sobietar soldaduek alde egin zuten Afganistanetik.
- START (strategic arms limitations talk), 1991n: arma nuklear estrategikoak gutxitzea ebatzi.
- Sobietarren eragina geroz eta txikiagoa. Ondorioz, 1989. urtean zehar herri-demokrazia guztiak jausi bata bestearen atzetik. 1989an deuseztatu bloke komunista Berlingo harresia erori Sobietar Batasuna desagertzea.
- 1991ko estatu kolpea: laguntzaile kontserbadoreek emanda. Kolpeak porrot egin zuen baina Gorbatxoven gainbehera politikoa ekarri zuen Errusiar Federazioak eta beste errepublikek independentzia aldarrikatu zuten.
- Sobietar Batasuna desagertuta, mundu bipolarra ere amaituta zegoen.